

Kanalen faseak

Gure produktuak, elikagaiak edo platerak, gure jatetxean bertan (salmenta-kanala propioa) erosi eta kontsumitu ditzakezu, modu eroso eta egoki batean.



Zure etxean edo beste edozein lekutan kontsumitu nahi baldin baduzu, telefonoz dei eginez edo online dagoen gure web orriaren bidez (komunikazio-kanalaren bidez) eskatu eta ordaindu dezakezu. Kasu hauetan, gure banatzaile partikularra (banaketa-kanala), moto elektrikoaz, eskatutako janaria edo elikagaiak, zu zauden lekuraino eramango dizkizu ahalik eta azkarren, janaria beroa iritsi dadin.

Gure online orriaren bidez ez baduzu ordaindu nahi, edo telefonoz eskatu baldin baduzu, banatzaileak kontsumizioa eramaten dizunean, eskuan ordaindu ahal izango diozu eta diru kopuru zehatza ez baduzu, diru xehea emango dizu.

